

‘BERTSOLATA’ MARTXAN DA

‘Hernani-Iñatzu’ desafioa, eta ‘Bertso Txata’ aurtengo nobedadeak

■ Abenduaren 23an hasiko da; Sarrerak: Txilli, Aralar, Bodega eta Ur Mian ■ Urteroko bertso jaialdiaz gain, Xabier Amuriza etorriko da Lazkao Txikiren bertsoekin.



Hernani eta Ereñotzuko bertsolariak, maixu haundiaren magalean. Larunbatean dute “desapiyua”.

IRAULIO Panttalone Bertso Kabiya orain dela 5 bost urte hasi zen *Bertsolata* izeneko ekitaldia antolatzen. Hartu bertsoa aitzaki eta hamaika eratako gauza ezberdinak egin: *bertsomatoia* (argazkiak bertsoan); *bertso musikatua*; *afari lizuna*, *afari beltza*; punta-puntako jaialdiak, Herriarteko txapelketa desafioko... Helburua? Bertsoarekin gozatu eta jende mota ezberdinari zer bait polita eskaintzea.

‘IÑATZU-HERNANI’ Ereñotzun berriz ere Txirrita kasta pitzen ari da. Azkenean zer da eta... desafioko: hernaniar taldea Ereñotzukoaren kontra, Ur Mia elkartearen.

BERTSO ‘TXATA’ Teknologia berriak eta bertsoa lotuko ditu aurtengo Bertsolatak: ordenadorez bertsoan!

LAZKAO TXIKI AMURIZAREN AHOTIK Lazkao Txiki bapateko sorgina bataiatu du Amurizak bere espektakulua: Lazkao Txiki haundiaren bertso, ateraldi eta pasadizioak dira, Amurizak kontatuta; Milagrosan.

PUNTAKO JAIALDIA Urteroko bertso jaialdia da Bertsolataren bihotza. “Aurtengo onenak Hernanin izango dira” -Irauliok-. Tartean herriko bi dira: E.Eizagirre eta A. Zerain” □

EGITARAUA

ABENDUAK 23
Hernani-Iñatzu desafioko (Agirre/Urdangarin/Osa-Zerain/Miner/Zelaia)

ABENDUAK 27
‘Bertso Txata’

ABENDUAK 28
‘Mando baten gainean’
Bertso-kale antzerkia

ABENDUAK 29
‘Lazkao Txiki bapateko Sorgina’
Amurizaren ikuskizuna

ABENDUAK 30
Bertso jaialdia
Egaña, Zerain, Lizaso, E.Eizagirre, Loidizaletxe eta Sorozabal.

Hernaniko Ehiza Txapelketako ‘finala’

■ Arkaitz Santakruz gaztea dijoa aurretik (406 p)
■ Josetxo Vacasek eta Juan Otegik 404na puntu.

28 ehiztari ibiliko dira gaur ere Epeleerka eta Uxokoerrekan eper, faisán eta oilgorretan. Denak ere joan den igandean baino gehiago botatzeko esperantzan aterako dira, ordukoa nahiko *kazeri* tristea izan zena: 80 faisán eta eper askatu eta erdiak ere bota ez.

EGURALDIA HOZTU
“Giro honekin etzeok ehizik”. Hori zioten ehiztariak aurreko igande epelean. Orain, asko ez, baino hoztu du. Ia oilgorretan antzematen den!

Txapelketa goizetako hamarretan hasi eta ordubata eta erdian bukatuko da. □

Santo Tomas azoka gaur, Gudarien Enparantzan

■ Bostgarren urtea du aurtengo ■ Bukaeran, bi txerri zozketatuko dira ■ *Berriak* elkarteak antolatu du.

10:30etan hasita, egun osoko azoka dago gaur Hernanin. Eskulanak, liburuak, laboreak, musika, paper artikuluak... Plazara arrimatzen denak izango du zer ikusi eta zer erosia.

PRESOEN LANAK
Aurtengo Santo Tomas azokan herriko preso politikoek egindako lanak ere eltxe egongo dira Senideak elkarteak jarritako postuan. □

3garren MAILAKO FUTBOL LIGA Real Union - Hernani

■ Pike pixka bat bada bi taldeen artean ■ Iruten, gaur 17:00etan

ESKUBALOIA (2. NAZIONALA) Aloñamendi - Hernani

■ Gaur, igandea, *ratxa* onari eusteko asmotan doaz Oñatira.

ERRUGBIA (1go LIGA NAZIONALA) Hernani - Mungia

■ Mailari eustezkero: irabaztera! ■ Gaur 12:00etan, Landaren.

BOLEIBOLA (EUSKADIKO LIGA) UPV Hernani - CV Haro, 12:00etan

■ 10:00etan, Hernani KE-UPV Bizkaia ■ Biak, gaur, Kiroldegian.

Maite Iribarren

- ESTETIKA
- MASAIA
- KINESIOLOGIA



- Min zorrotz eta kronikoak.
- Lesio eta bizkarreko arazoak.
- Estres egoerak.
- Emozio tentsioak.
- Beldurrak eta izuak.
- Antzietate arazoak.
- Autoestima.
- Eskola eta kirol emaitzen hobekuntza.
- Ikasketarazoak.
- Errendimendua hobetzeko teknikak.
- Janariak sortutako alergiak.
- Azterketen aurreko estresa.

Juan de Urbietak 7 - 6.C
Tel. 943 553 948
20120 HERNANI (Gipuzkoa)



AMEGAR, C.B.
ETXE TRESNAK

SUKALDE ALTZARIAK

ELEKTROGAILUAK - TB - BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK

Izpizua 27

Txirrita kalea 15

Telefonoa (943) 55.11.25 - Faxa (943) 55.16.03
HERNANI (Gipuzkoa)



FABIA bat 1.375.000 ptatik* (8.263,99 euro*)

* Penintsula eta Balearretako gomendatutako prezioa. *Skoda Fabia Classic 1.4 60 CV, Gerraileko, bereziki eskaintza bereziki: plana barne. Stockeko autoentzat baliozgarria. 1 euro=166,386 pztza.

MENABI

Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 4

Karabel: Herri krossa goizean eta sari banaketa eguerdian

■ Goizeko 10:30etan hasiko dira karrerak ■ Pintatzen eta idazlan lehiaketan ume asko izan da aurten ■ Sariak 12:30etan banatuko dira.



Hiru gazte, lanak txukun egiten; auzo elkarteke lokalean.

BELKARA, Karabelgo auzo elkarteak antolatuta, ume eta helduentzako herri krossa egingo da gaur. Adin bakoitzari dagozkion distantziak jarri dituzte: 10-11 urtekoek, 600 m; 12-13koek, 1200 m; 14-16koek, 2400 m; eta 17 urtetik gorakoek 8300 m.

ATZO, PINTATZEN 20 ume inguru aritu ziren zeinek marrazki hobea egingo. Idaztea gustatzen zaizkionek, berriz, *Urumea* zuten gaia eta 40 izan dira ikastoletan aukeratutako idazlanak; parte hartu askoz gehiagok egin du. Euskaraz eta gaztelaraz, bietan zen lehiaketa. Irabazleak atzo arratsaldean aukeratu zituzten eta gaur eguerdian jakingo dugu zein diren. □

Lizeaga: auzo elkarteak, direktiba berria behar da

■ Oraingo zuzendaritzak utzi egingo du ■ Gazteei dei egiten diete "erreleboa" hartzeko ■ Auzoan egiteko gauza asko dagoela diote: aparkalekuak, jardinak...

ORAINGO direktibakoak bakarrik elkartu ziren atzo, Lizeagako auzo elkarteak antolatutako bileran. Julio Rubio lehendakariak bere kargua utziko du eta direktiba berria osatu nahi dute.

JENDE FALTA

"Gazterik ez da animatzen eta!" keja dira elkartekideak. Auzoan ba omen dago zereginak pranko, eta oso lan gutxi eskatzen omen du gainera: jendearen keja edo arazoak idatzi eta udaletxera eramatea izaten da guztia. Horretaz gain bizi piska bat eman nahi diote Lizeagari: lehen bezala futbol torneok antolatu, festak egin... Laguntzeko prest dagoena, larunbatetan auzo elkarteke lokaletik pasa, goizeko 11:30etatik 12:30etara. □



Lizeagako auzo elkartekeok, lokal aurrean.

JANTZI DENDA
AMBOTO
GABONETAKO KANPAINA
%25eko beherapen bereziak
Nagusia 54 - Tel. 943 552 340 HERNANI

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia
Urbietan Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

TELEBISTAK
BIDEOAK
BIDEOKAMARAK
ETXE TRESNAK
expert
ANEXO
Segundo Izpizua, 21
Tel. 943 55 03 81
20120 HERNANI

UGALDE, S.A.
SUKALDE ALTZARIAK
Lastaola industrialdea p.16
Tel. 943.551.598
Faxe 943.552.067
20120 HERNANI

HITZ BITAN



Peña Otaño zuzendaritzakoak barrikotearen ondoan. Txot!

✓ PEÑA OTANO ELKARTEA

Barrikotea, datorren ostiralean. Abenduaren 22an afaria eta barrikotea egingo dute *Peñan*. Menua: txorizoa sagardotan, urdaiazpiko tortila, txuleta eta kafea. Sagardoa, berriz, Otsuaeneak jarriko du. Afaria 2.000 Ptan izango da. Ordua: 20:30etan.

✓ ARRAUN ELKARTEA

Bilera, datorren asteazkenean, bazkide guztiekin. Urteroko bilera izango du arraun elkarteak. Lehengo urteko *memoria* egingo da hasieran; iazko denboraldiko balantzea segidean; bukatzeko datorren denboraldirako presupuestoa eta egitasmoak azalduko dira. Ondoren, jendeak galderak egiteko tartea izango du. Hilaren 20ean, Biterin, arratsaldeko 20:00etan. □

AGENDA

❖ ANTZERKIA

El pequeño gran charlatan. Irlandes bat Euskadin.

Triku tabernan, 20.00etan.

❖ ZINEA

X Men
Biterin, 17:00 eta 19:30etan.

❖ MUSIKA

Gaubela taldea
Oialumen, 20:00etan.

❖ DANTZA

Tiarla dantza taldea
Biterin, 12:00etan.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093
► Udaltzaingoa: 943 333288
► DYA: 943 464622
► Autobusak: 943 556662
► Anbulatorioa: 943 557750

☎ FARMAZIAK

► Egunez: Gomez Justel
Nagusia, 15
☎ 943 554892
► Gaez: Acha-Orbea
Lasarte. Hipodromo etorbidea, 6
☎ 943 363549

IRAGARKI MERKEAK

■ Pisua salgai, Etxeberrin. Deitu 15:00etatik aurrera.

☎ 943-5524 06



SANTA BARBARA

PEUGEOT



PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - 943 551 979, 20120 HERNANI

AUTO ETA FURGONETA ZAHARRAK HARTU ETA 2. ESKUKOZ ALDATZEN DITUGU

- Peugeot 405 *Diesela nahiz Gasolina* 350.000 pzta
- Peugeot 205 *Diesela* 350.000 - 680.000 pzta
- Citroen C-15 *Diesel* batzuk 380.000 pztatik
- Ford Courier *Diesela-Lagundutako direkzioa*
- Opel Astra 'Caravan' *Diesela* 775.000 pzta
- Opel Astra *Diesela* 875.000 pzta
- Suzuki 'Todo Terreno' 375.000 pzta

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...